

b) Helburuak ezartzea eta hezkuntzako esku-hartzea eta ikaskuntza-egoerak diseinatzea*1. maila: Oinarrizkoa**2. maila: Garatze bidean**3. maila: Garatua**4. maila: Aurreratua*

Ez du hasierako diagnostikoa aintzat hartzen irakaskuntza-ikaskuntza prozesua planifikatzeko.

Programazioan oinarrizko elementu batzuk falta dira (konpetentziak, helburuak, metodologia, baliabideak, denborak, ebaluazio-irizpideak) edo ez dago horien arteko koherentziarik.

Curriculumeko helburuekin bat ez datozen helburu orokorrak planteatzen ditu.

Helburuak ebaluatzeko erabili ezin diren irizpide eta adierazleak planteatzen ditu.

Irakaslearen zentratutako metodologiak eta proposamen didaktikoak planifikatzen ditu, erronkarik, arazo-egoerarik... proposatu gabe.

Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren planifikazioa testuinguru sozialaren eta ikasle taldearen premien arabera doitzen du.

Espezialistei laguntza eskatzeko aukera aurreikusten du; bai zailtasunak dituzten ikasleei laguntzeko, bai curriculumak aberasteko beharra dutenei laguntzeko.

Programazioan oinarrizko elementu guztiak daude, eta koherentzia dago elementu guztien artean.

Ez-linguistikoak diren eremu / arlo / ikasgai / modulu eta abarretan ere komunikazio linguistikoari dagokion helbururen bat dauka.

Planteatutako helburuak zuzenak dira, eta modu egokian egiten diote erreferentzia curriculumari.

Ebaluazio-irizpide eta -adierazleak argi eta garbi dira baliagarriak proposatutako ikaskuntza-helburuen betetze-maila neurtzeko.

Ikaslearen zentratutako metodologia bat planifikatzen du. Arazo-egoerak planteatzen ditu.

Proposamen didaktikoak taldearen eta ikasle bakoitzaren hasierako diagnostikoaren emaitzen arabera planifikatu eta doitzen ditu.

Beste profesional batzuekin koordinatutako esku-hartzeak planifikatzen ditu.

Eremu / arlo / ikasgai / modulu eta abar guztietan daude zehaztuta zeharkako konpetentzia guztiei lotutako helburuak, bereziki komunikazio linguistikoarekin eta STEAM konpetentziekin zerikusia dutenak.

Ebaluazio-prozedura aktibo, dinamiko eta motibagarriak planifikatzen ditu proposatutako irizpide eta adierazleak neurtzeko: autoebaluazioa, koebaluazioa, portfolioak, aurkezpenak...

Programazioaren ardatza metodologia aktiboak eta askotariko arazo-egoerak dira. Ikasleentzat motibagarriak izatea da helburua, eta oinarrizko eta zeharkako konpetentziak eskuratzeko prozesua bideratzeko baliagarriak izatea, horretarako metodologia malguak eta lankidetzako ikaskuntza sustatuta.

Bestalde, 3. mailan jasotakoaz gain...

Eskolak maila berean eta beste arlo batzuetan ematen dituzten irakasleekin koordinatuta eratzen du programa, proposamen didaktikoak diziplina anitzetatik egiteko.

Diziplina anitzeko proposamenen ebaluazio-prozedurak koordinatzen ditu.

Erreferentea da bere eskola-komunitatearentzat eta beste ikastetxe eta erakunde batzuentzat. Curriculum ofizialaren prestakuntzan eta garapenean laguntzen du.